

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	HAREAK NAHASTEKO TEKNIKAK	Iraupena	60
		Espezifikoa	
Kodea	UF0172		
Lanbide-arloa	FABRIKAZIO MEKANIKOA		
Lanbide-eremua	Galdaketa		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Moldaketa eta argintza	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Moldaketa- eta argintza-prozesuak	Iraupena	230
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Moldaketa- eta argintza-prozesuen aplikazioak	Iraupena	80
	Moldeak eta arrak eskuz lortzea	Iraupena	90

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0588_2: GALDAKETA-PROZESURAKO MOLDE ETA ARRAK EGITEA gaitasun-ataleko LB1 lanbide-burutzapenarekin

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Moldaketa-hareak dagozkien aditiboekin nahasteko teknikak erabiltzea, nahastearentzat finkatutako propietate fisikoak lortu arte, laneko eta ingurumeneko arriskuen prebentzio-arauak betez.

EI1.1 Hareak prestatzeko instalazioak deskribatzea, eta haietan parte hartzen duten elementu mekaniko, elektriko, pneumatiko eta hidraulikoak eta haien funtzioa identifikatzea.

EI1.2 Neurgailuak eta kontrol-elementuak deskribatzea, eta kontrolatu beharreko aldagaiekin erlazionatzea.

EI1.3 Harea-nahaste moten ezaugarriak eta konposizioa eta moldaketa- eta argintza-prozesuetan duten portaera eta aplikazioa deskribatzea.

EI1.4 Harearen osagaiak identifikatzea, harea prestatzeko orriak baliatuz: harea berria, itzulera-harea, bentonita, harrikatza, erretxinak eta aglomeratzaileak.

EI1.5 Harea-nahasteak lortzean izaten diren akatsik ohikoenak erlazionatzea haiek eragiten dituzten kausekin.

EI1.6 Harea-nahasteak lortzeko makinak, ekipoak eta instalazioak prestatzeko prozedurak deskribatzea.

EI1.7 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean, lortu behar den harearen espezifikazio teknikoak eta egin behar diren piezen kantitatea eta forma aintzat hartuta:

- Harea-nahaste bateko produktuak eta aditiboak identifikatzea (osagaiak, ehunekoak eta abar).
- Harearen osagaien zenbateko kantitatea behar den kalkulatzeko, zehaztutako proportzioaren arabera, konposizio egokia ezartzeko pisaketak eginez.
- Nahastea lortzeko eragiketa-parametroak finkatzea (energia, iraupena, temperatura eta abar).
- Hareak eta osagaiak nahastea, ekipo edo instalazioen doikuntzak eta martxan jartzea kontrolatuz, segurtasun-kondizioetan.
- Tresnak moldaketaren arabera hautatzea, eta zer egoeratan dagoen (inkrustaziorik eza, gainazal-egoera, garbitasuna...) eta espezifikazio teknikoekin bat datorren aztertzea.
- Egindako nahastearen lagin bat ateratzea eta probetekin entsegua egitea, haren ezaugarriak zehazteko (iragazkortasuna, trinkotasuna, flexioaren aurkako erresistentzia, forma eta abar). Nahasteen banku-bizitza zehaztea, prozesuaren errendimendu optimoa lortzeko.
- Prozesuaren aldagaien hasierako kondizioak (iraupena, energia, konposizioa eta beste) aldatzea, analisisian lortutako emaitzen eta lortu nahi diren ezaugarrien arabera.

Edukiak

1. Moldaketako eta argintzako lehengaiak

- o Moldaketako hareak:
 - Harea naturala.
 - Harea zaharra.
 - Estaldura-harea.
 - Harea betegarria.
 - Moldaketa-harea sintetikoa.
- o Moldaketa-hareen osagaiak.
- o Arretarako hareak. Ezaugarriak (gasekiko iragazkorra eta erresistenteak)
- o Arrentzako aglomeratzaileak (almidoia, olio, erretxina sintetikoak, zementu-hautsa.

2. Galdaketa-hareak egiteko prozesua

- Harea-motak: Aglutinatzaileak. Aditiboak.
- Ezaugarriak.
- Konposizioa.
- Egitura eta konposizioa.
- Nahastearen kalitatea.
- Probeta/lagina aztertzea.
- Defektulogia.

3. Hareen prestakuntza

- Prestakuntza-prozesuak:
 - Gabikotzea.
 - Ehoketa.
 - Baheketa.
 - Nahasketa.
 - Biltegiratzea.
 - Oratzea.
 - Lehortzea.
 - Hezetzea.
- Arretarako hareak.
- Moldeetarako hareak.

4. Ekipo eta instalazioen deskribapena eta funtzionamendua

- Moldaketa-harea prestatzeko instalazio bat ezagutzea.
- Errotak, birringailuak, hormigoi-makinak, baheak, harea-lehorgailua. Motak. Zati nagusiak. Deskribapena. Funtzionamendua.

5. Kontrol-prozedurak eta -teknikak

- Neurketa- eta kontrol-tresnak.
- Neurketa- eta kontrol-prozedurak.

6. Segurtasuna eta ingurumena harea-nahasketan

- Hareagintzako langileei segurtasun- eta higiene-arauak aplikatzea; alegia, azidoen aurkako amantala, aurpegi-babesa eta alboko babesa duten betaurrekoak erabiltzea.
- Moldaketa eta argintzako teknikari ingurumena babesteko aplikatu beharreko neurriak.

C atala: ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK

Sartzeko irizpideak

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urte baino gehiagokoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Moldaketa eta argintza.